

PASAIA / Gabonak modu plastikoan islatuko dituzte haurrek

4 eta 14 urte bitarteko haurrek har dezakete parte Marrazki eta Pintura Lehiaketan, hilaren 27era arte

OLATZ MITXELENA

Urtero legez, Gabonen atarian Marrazki eta Pintura Lehiaketa antolatu du Antxoko Liburutegiak. Aipatu lehiaketak oso harrera ona izaten du barrutiko nahiz herriko haurren eta gazteen artean. Izan ere, herriko ikastetxe guztiek parte hartu ohi dute. Edonola ere, lehiaketa zabalik da 4 eta 14 urte bitarteko haur guztientzako, herrian bertan ikasi edo ez.

Herritik kanpo ikasten duten haurrek eta gazteek hilaren 25era arteko epea dute lehiaketan izena emateko. Arratsaldez jo behar da liburutegira izena ematera, 16:00etatik 19:45etara.

Gabonak nola irudikatzen dituzten islatuko dute gazteek pinturetan eta marrazkietan, modu plastikoan, alegia. Lan guztiak bildu ondoren, antolatzaileek aurrez zehaztuta dituzten adinaren arabera taldeetan sailkatuko dituzte parte-hartzaileak, eta epaimahaiak talde bakoitzeko hiru lan hautatuko ditu. Horiek sarituko dituzte. Epaimahaiak pinturaren eta artearen munduko adituek osatuko dute, eta lanek nahiko kalitatetik ez dutela iritziko balute, hutsik utz ditzakete sariak.

Sari banaketa, urtero legez, jendaurrean egingo dute, eta irabazleen izenak prentsa eta irrati bidez jakinaraziko dituzte. Horrez gain, liburutegiko iragarki taulan ere ikusi ahal izango dira.

Hilaren 27a, azken eguna

Lehiaketarako lan guztiek hilaren 27rako Antxoko liburutegian behar dute, baina honez gero aurrez daitezke, 10:00etatik 12:45era eta 16:00etatik 19:45era.

Abenduan, sari banaketa baino lehen ikusteko moduan jarriko dituzte lehiaketara aurkeztutako lan guztiak Kultur Etxean. Edonola ere, ez dago oraindik erakusketarako data aurreratzerik.